

TURBO-BIRIBILGUNEAK

- Ohiko biribilgunearekin erkatuta, lerro berezi bat dute zerbitzuko irteerara.
- Turbo-biribilgunean aukeratu egin beharko duzu biribilgunean edo lerro berezian sartu. Gero ezin izanen zara aldatu.

Nafarroako etorb. Iruña. Biurdanako biribilgunea



Argitaratzailea:
Nafarroako Gobernua
Barne Zuzendaritza Nagusia
(Lehendaritza, Barne eta
Justizia Departamentua)

**BIRIBILGUNEETAN
BEHAR
BEZALA
ZIRKULATZEKO
AHOLKUAK**



SARTU BAINO LEHEN

- Jarraitu behar duzun ibilbidea hautatu eta lerro egokian jarri.
- Zure ibilgailuaren abiadura moteldu.
- Biribilgunean dabiltzan ibilgailuen lehenasuna errespetatu.

BIRIBILGUNEAN ZAUDELA

- Dagokizun lerroan ibili, nora zoazen kontuan hartuta.
- Gainerako lerroetako ibilgailuak errespetatu.
- Lerro aldaketak aldeztu aurretik adierazi keinukariekin.
- Ez gelditu.

PA-32 Iruñeko hego-ekialdeko sarbidea. Galarko biribilgunea



ATERATZEKO

- Garaiz jarri kanpoko lerroan, hartan dabiltzan ibilgailuentzat oztopo izan gabe.
- Eskuineko keinukariarekin adierazi maniobra, aukeratu duzun irteeraren aurrekoa igaro duzunean.
- Ez baduzu betarik izan dagokizun lerroan jartzeko, beste bira bat egin biribilgunean eta lerroa lasai aldatu.

